



ORIENTATZEN IKASIZ ALTXORRAREN BILA



Lorategi botanikoan ezarririk dagoen orientazio ibilbide horiari loturik, orientatzen ikasi eta natura hobeto ezagutzeko jolas bat da Altxorraren bila. Jolas honetan parte hartzen duten talde bakoitzak, mapa bat, iparrorraz bat eta kontrol txartel bat izango dituzte eta ibilbideko 10 baliza topatu beharko dituzte. Baliza bakoitzean, kontrol txartela zulatzeaz gain, berari loturik dagoen galdera erantzun beharko dute.

Behin galdera guztiak erantzunda Iturraran Parketxean azken pista bat emango zaio talde bakoitzari bere altxorra bilatu dezan.

Orientatzen ikasiz, inguratzen gaituzten naturaguneak hobeto ezagutu eta berauetan goxatzea ahalbideratzen da.



Helduak 5€

Haurrak 3€

Norbanakoek asteburu eta jaiegunetan burutu dezakete. 11ak aurretik etorrira.

Taldeek aurrez hitzartu behar dute.

ORIENTAZIO ZIRKUITUAK

Orientazio froga bat, mapa batean adierazitako ibilbide bat naturan jarritako balizak bilatuz egitean datza. Parte hartzaile bakoitzak, mapa bat eta kontrol txartel bat izango du, bertan baliza bakoitza zulatu beharko delarik.

Orientatzen ikasiz, Pagoetako Parke Naturalaz gozatu eta Iturrarango Lorategi Botanikoa ezagutu dezakezu.

Horia

1,3 Km (familia eta umeei zuzendua)
10 baliza

Laranja

2,7 Km (gazte eta heldu hasiberrientzat)
15 baliza

Gorria

3,5 Km (orientazioan aritzen direnentzat)
18 baliza



Mapak salgai Iturraranen 1€